

PRESIDENTEA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2013ko OTSAILAREN 20an
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Álava
Garbiñe Alaña
Julio Etxaurren
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udalbatzara ongi etorria eman die guztiei.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendako gaiak aztertzeari ekin diote.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko urtarrilaren 30eko ohiko osoko bilkuraren akta.

Horren inguruko adierazpenik egin ez denez, korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea (Patxita etxea)" obrari dagozkion Obra-zuzendaritzaren, Obraren exekuzioaren zuzendaritzaren eta Segurtasun- eta osasun-koordinazioaren zerbitzuen kontratuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeke baldintzen plegua.

Iratxe andreak (AB) esan du bere taldeak aurka bozkatuko duela, batzordearen bilkuran argudiatu zutenarekin bat eginez. Ondoren, idazki hau irakurri du:

"Aiara Batuzek, obra honen inguruan asko eztabaidatu eta hausnartu ondoren, azken ahalegin bat egin nahi izan zuen, Obrak eta Zerbitzuak Batzordearen aurreko bilkuran, proiektu honi eta bere irismenari buruzko hausnarketa partekatua bilatzeko. Horren beharrezana argudiatzeko, honako arrazoi hauek eman genituen:

Lehenengo eta behin, adierazi genuen obra honen oinarrian dagoen proiektuak, orain arte, konfiantza gutxi eman digula.

Bigarrenik, izapidetzeak proiektuak onetsi arte jarraitu duen bidea ikusita... Eraikin horretako lehenengo solairuko eremua hainbeste murriztu da, non erabilera gutxi ezar baitaiteke bertan.

Hirugarrenik, aipatu egin behar dugu proiektu horren partida guztiak ez daudela definituta: oraindik ere egiteko dago hornikuntza elektrikoaren hartuneari dagokion guztia. Zenbatekoa, ziur asko, 30.000 €-en eta 200.000 €-en artekoa izan daiteke.

Laugarrenik, egin nahi dugun planteamenduari dagokionez garrantzi handiena duen kontua obra honen aurrekontua da. Aurrekontu horrek, BEZa barne, 923.000 €-tik gorakoa da, eta gure ustez zenbateko hori handiegia da, anbulatorio bakarra lortzeko. Bide batez, uste dugu Luiaondon anbulatorio bat atzeratu gabe lortzea ezinbestekoa dela.

Uste horiek guztiak ikusita, beharrezkotzat jo genuen gelditzeko eta proiektu honetaz eta horren inguruko ez hausnartzeko aukera aztertzea.

Gure taldeak uste du ez dela ideia zentzugabea baloratzea proiektu hau baztertzeo aukera eta oin berriko eraikin bat egiteko aukera, Luiaondon osasun-zentro berria bertan jartzeko, lursail horretan bertan.

Horrek zenbait ondorio ditu. Alde batetik, proiektu berri bat egin beharko litzateke, baina ez osorik; izan ere, aukera egongo litzateke beste proiektuak proposatutako banaketa baliatzeko, Osakidetza beharrezkotzat jotzen dituelako eremu horiek, osasun-zentroa eraikitzeo jarraibideak ezartzean. Osasun-zentro horren ekipamenduaren kontu guztiak hasiera bateko proiektutik ere har liteke.

2014-2015 urteetarako Foru Planaren baitan jasotako diru-laguntzari dagokionez, aukera egongo litzateke eurekin negoziatzeko 2014rako diru-laguntzari uko egiteko eta 2015ean diru-laguntzari eusteko, osasun-zentroaren obra-exekuzioari dagokion zenbateko berberarekin. Eta aurten proiektua egiten bada eta AFAk onesten badu, 2015ean obra osoa exekuta liteke.

Jaso daitezkeen diru-laguntzei dagokienez, hala EREINen deialdia nola Osakidetzaen diru-laguntza finantzazio-iturri posibleak dira, proiektu honetarako. Izan ere, oraindik ere ez da eperik ireki horietarako eskaerak aurkezteko.

Aurrera jarraitu aurretik gutxienez hausnartzea defendatzeko darabiltzagun arrazoiak honako hauek dira:

- Gaur egun egin nahi den obraren kostua gehiegizkoa da epe laburrean lortuko den emaitzarako, eta ez dugu ahaztu behar obra guztietan gerta daitekeela obraren azken prezioa handitzea, hasiera bateko aurrekontuaren aldean.*
- Osasun-zentroa eraikin berri batean egiteak merkatu egingo luke egin beharreko inbertsioa. Aparkaleku apur bat erabilgarriagoa (leku gehiagorekin) egitea proposa daiteke, eta askatasun handiagoa eman lezake aretoak banatzean, egungo eraikuntzak ezartzen dituen baldintzen menpe egon gabe.*
- Eraikuntza honen erabilera aldatzeak dakartzan arazoak saihestuko genituzke: bizileku izateko eraiki zen, eta orain kulturara edo osasunera bideratu nahi dugu.*

Azkenik, adierazi nahi dugu aukera hori zentzuzkoena izango litzatekeela uste dugun arren, ez ditugula baztertu nahi izan bidezkotzat jotako ekarpenak, honako hauei dagokienez: "Klausula ekonomiko eta administratiboen plegua, araupetu egingo duena publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, Luiaondoko (Aiara) erabilera anitzeko zaharberitze-proiektua hobetzeko zerbitzuaren eta obra-zuzendaritzako laguntza teknikoaren zerbitzuaren, obra-exekuzioaren

zuzendaritzaren eta segurtasun- eta osasun-zerbitzuaren prestazioa esleitzeko, aurreikusitako obren exekuzioan". Izan ere, gobernu-taldeak eta korporazioko gainerako kideek erabakitzen badute proiektu honekin aurrera jarraitzea, uste dugu obra-zuzendaritzaren, obra-exekuzioaren zuzendaritzaren eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa esleitzeko, aintzat hartu behar direla gure ekarpenak, zintzotasunez eta gardentasunez, lan horiek gauzatzeko eskaintza aurkeztu dutenei begira.

Adierazitako guztiari jarraikiz, HAU ESKATZEN DUGU:

Gauden puntuan hausnartzeko gera gaitzela; izan ere, oraindik ere ez dago atzera bota ezin den konturik proiektu honetan. Orobat, elkarrekin eta zintzotasunez pentsatu behar dugu ea obra hori eraikin horretan egitea zuzenena eta arduratsuena dela udalerrian. Ez ote litzateke seguruagoa eta ekonomikoagoa izango udalerrian oin berriko eraikin berri bat eraikitzea, Luiaondoko osasun-zentroa bertan ezartzeko."

Iratxe andreak adierazi du idazki hau aurkeztu zela Udalean, talde politikoei alegazioak egiteko emandako epearen baitan; baina, hori gaitzetsi zenez gero, beste idazki bat irakurri du. Bertan azaltzen du zergatik bozkatuko duten aurka:

"Gogorarazi nahi dugu Aiara Batuzek A4 Arquitectosen proiektua onetsi zuela joan den 2013ko urriko osoko bilkura, zenbait baldintza ezarrita eta argi utzita beharrezkoa zela proiektu hori goitik behera berrikustea, hala teknikoki nola ekonomikoki, gure taldeak obra honen jarraitutasunaren alde egiten jarraitu ahal izateko.

Batzordearen bilkuran, ondoren onetsi zen obra-zuzendaritza esleitzeko, obra-exekuzioaren zuzendaritzarekin eta obraren segurtasun- eta osasun-koordinazioarekin batera.

Horretarako, beharrezkoa zen plegu hauek egitea, non jada ezinezkoa baita burua lurraren azpian ostentzea eta A4 Arquitectosen proiektuaren gabezien aurrean ezikusiarrena egitea. Teknikoki eta ilustrazio legez, gure taldeak elektrizitate-ingeniari bati galdera bat egin zion, proiektuan elektrizitateaz jasotako atalari buruz. Bada, adierazi zitzaigun elektrizitatea gehiegi dimentsionatuta zegoela, ez zela behar planoetan eta gainerako dokumentazioan adierazitako potentzia behar.

Halaber, berokuntzaren inguruko kontsulta egin genuen, eta adierazi zitzaigun instalazio berbereko hotza/beroa lortzeko efizienteena (eta ez hain garestia) sistema elektrikoa jartzea zela.

Partida gehiago kontsultatzen ez jarraitzea erabaki genuen, ulertzen genuelako obraren zuzendaritza esleitzean proiektua goitik behera berrikusiko zela.

Harritu egin ginen ikusi genuenean plegu hauek idaztean gobernu-taldeak adierazi egin zuelako egiazki zuzendu beharreko kontuak bi horiek zirela eta gainerakoak egokiak zirela.

Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi beharrezkoa dela proiektua osatzen duen aurrekontua sakon berrikusi beharra. Ordenarik gabeko aurrekontua da, zaila partiden distribuzioari dagokionez, eta udal-arkitektoak ere onartu du ulergaitza dela.

Oinarri horrekin, proposatu genuen obra-zuzendaritzaren esleipenean jaso egin behar zirela proiektua berrikustea esleipendunari ekarriko zion kostua eta lana.

Alabaina, gobernu-taldearen asmoa da (eta EAJ-PNVk bat egiten du horrekin) obra-zuzendaritza, obra-exekuzioaren zuzendaritza eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa oso zenbateko hertsietan esleitzea. Asmoa da, gainera, horien baitan jasotzea proiektuak eskatzen dituen aldaketak eta hobekuntzak, aintzat hartu gabe aldaketa horiek kostu bat dakarkiotela esleipendunari: proiektuaren balizko eranskinak egitea, ikus-onestea, dagokion aseguruia, hirugarrenak kontratatutako behar izatea berrikuste-lanen zati bat egiteko, etab.

Hori dela eta, gure taldeak uste du kontratua baldintza hauetan esleitzea arazo-iturri besterik ez dela izango. Izan ere, badakigunez, proiektuak aldatu egin ohi dira obrak hasi aurretik, baina baita obra exekutatu bitartean, eta horrek, seguru asko, ekarriko luke egiteko partidak enpresa eraikitzaileak aurkeztutako aurrekontuan ez sartzea: "administrazioaren bidez" joango lirateke, guztiok ezagutzen dugun prezio librearekin, egin ahala sortzen diren partiden prezio librearekin.

Beraz, ez gaude obra-zuzendaritzako lanak obra-exekuzioaren zuzendaritzarekin eta segurtasun- eta osasun-koordinazioarekin batera esleitzearen aurka, ezpada esleipen hori egiteko onetsi nahi diren pleguen aurka. Plegu horiek ez dute argi jasotzen zer-nolako mesfidantza dagoen hasiera bateko lehenengo proiektuari dagokionez. Gure interesa da plegu horien berrikuspen tekniko sakon eta zehatza egitea, eta bertan jasotako aurrekontuari buelta ematea.

Izan ere, esleipendunak ez badu hori guztia egiten, obra bera esleitzean arazoak etorriko dira, orduan egingo dute prezioek gora eta orduan etorriko dira buruhausteak Udalean eta udalerrian oro har."

Lauren jaunak (BILDU), Iratxe andreak esandakoari erantzuteko, adierazi du eraikinaren titulartasuna Udalarena dela eta aurreko korporazioak inbertsio handia egin zuela. Eraikina herriaren erdian dago. Oinarrizko babesaren duen eraikina dela hasiera batetik jakin zen, eta aho batez ebatzi zen laguntza eskatzea Arabako Foru Aldundiari, zaharberritze-lanetarako. Foru Plana Sailarekin kontsultatu da, eta proiektu honi uko egiteak emandako diru-laguntza galtzea dakar. Horrela, bi urte galduko lirateke; izan ere, Foru Planaren diru-laguntzen hurrengo deialdia ez da 2016ra arte egingo.

Lauren jaunak hitz egiten jarraitu eta esan du obra-zuzendariari eta obra-exekuzioaren zuzendariari dagozkion lizitazio-prezioak direla eta, udal-arkitekto batek finkatu dituela; beraz, pertsonalki, ezin du irizpide teknikoa eztabaidatu.

Iraida andreak (AB) esan du udal-arkitektoak esan zuela prezioa egokituta zegoela.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du bere taldeak pleguen alde egingo duela, udal-teknikariaren irizpideetan oinarritzen baitira.

Iraida andreak adierazi du gonbidatutako arkitektoek zenbatekoa onets dezaketela; baina, aldaketak egin behar direla ikusten badute eta aldaketok obran egiten badira, kostua handiagoa izango da.

Josu jaunak (BILDU) esan du kontua ez dela berrikustea eta proiektu berri bat egitea. Bestela, orain ditugun zalantza berberak ager litezke. Hitz egiten jarraituta, esan du gai tekniko batzuetan zalantzak egon daitezkeela, baina istorioa ezagutzen du eta badaki nola puztu den gai hau. Gainera, aintzat hartu behar da eraikin bat zaharberritzeko lanak direla. Halaber, esan du alarma ere sortu zela energia-hornikuntzaren kontuarekin. Batzordean azaldu zen teoriarik Iberdrolari zegokiola obra eta Udalak hartunea besterik ez zuela ordaindu beharko.

Iraida andreak (AB) esan du bere xedea ez dela proiektu osoari buelta ematea: argi utzi nahi du proiektu honek ez duela inolako konfiantzarik sortzen, eta kanpoko baten batek berrikustea nahi du, zuzena bada, aurrera jarraitzeko.

Josu jaunak erantzun dio arrazoi horregatik utziko dela obra-zuzendaritza beste profesional baten esku; noski, proiektua berrikustez ere arduratuko da.

Iratxe andreak (AB) esan du egungo proiektuak ez diela inolako konfiantzarik ematen. Ados daude obrarekin, baina ez proiektu horrekin. Esan du berrikusitako bi alderdiek (berokuntza eta energia-hornidura) akats izugarriak dituztela, akats gehiago ere egon daitezkeela eta horiek berrikustek obraren gastua handi dezakeela.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du Aiara Batuzek batzordearen aurreko bilkuran sortutako eztabaida ez zela aurretik egin. Obra horri heltzeko erabakia hartu bada, guztiak ados jarrita, aurrera jarraitu beharko da.

Iratxe andreak erantzun du bere taldeak ekarpenak egin dituela proiektuan, baina asko ez direla onartu. Bere taldeak behin eta berriz esan du aurrerapausoak eman behar zirela, baina ikusi dutenean zenbatekoa hainbeste handitu dela eta are gehiago handi daitezkeela obrako zuzendariak berrikusi ondoren, obraren bideragarritasunaz hausnartzeari ekin diote. Nolanahi ere den, pleguei buruzko ekarpenak ere egin zituzten.

Josu jaunak (BILDU) esan du proiektuak gabeziak dituela. Zaharberritu nahi den eraikuntzak bere mugak ditu, eta egin diren alegazio edo iradokizun guztiak artatzeko ahalegina egin da, zegokion teknikariei galdetuta. Bada, batzuk egiteko aukera egon da, baina beste batzuk egitekoa ez.

Iraida andreak esan du eurek ordainsari gisa proposatu dituzten zenbatekoak ez datozela airetik. Profesionalekin hitz egin dute eta elkargoen formulak aintzat hartuta kalkulatu dituzte ordainsari horiek. Gainera, gogoan izan behar da obra-zuzendariari eskatzen ari direla A4 Arquitectosek utzi digun proiektua berrikusteko eta zuzentzeko. Nahi badute, berokuntza eta elektrizitatea berrikusi dezatela, baita beste edozein akats ere. Diru-laguntzak dakar berrikusi egin beharko diren eranskinak egitea, eta horretarako guztirako dirua behar da.

José Luis jaunak (PP) esan du proiektua zuzentzeko ekarpenak egin zituela eta horiek ez direla aintzat hartu; hortaz, gaiari buruzko bozketan abstenitu egingo da. Inork ez du beste ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 8 (4 BILDU + 4 EAJ)

Kontrako botoak: 2 AB

Abstentzioak: 1 PP

Hori dela bide,

IKUSI DA beharrezkoa dela Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeari buruzko proiektua hobetzeko zerbitzua kontratatzea, arreta berezia jarritz sistema elektrikoan eta berokuntzan. Halaber, kontratatu egin behar da Obra Zuzendaritzaren Laguntza Teknikoko Zerbitzua, Obra Exekuzioaren Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren Zerbitzua, obrak exekutatzen diren artean.

IKUSI DA aipatutako zerbitzua esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua araupetu behar duten klausula ekonomiko-administratiboan eta teknikoan plegua.

IKUSI DIRA Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak 2014ko otsailaren 20an emandako txostenak.

IKUSI DA Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2014ko otsailaren 18an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA ez dagoela kreditu nahikorik eta egokirik kontratu honek eragingo duen gastua baimentzeko.

AINTZAT HARTU DA Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen abenduaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa.

Korporazioak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Administrazio-espeditzea hastea, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharbertzeari buruzko proiektua hobetzeko zerbitzua kontratatzeko, arreta berezia jarritz sistema elektrikoan eta berokuntzan. Halaber, kontratatu egin behar da Obra Zuzendaritzaren Laguntza Teknikoko Zerbitzua, Obra Exekuzioaren Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren Zerbitzua, obrak exekutatzen diren artean.

Bigarrena.- Beharrezko aurrekontu-partida sortzeko beharrezko kreditu-aldaketa izapidetzea, aipatutako kontratuak dakarren gastuari aurre egiteko.

Hirugarrena.- Onestea Administrazio Klausula Partikularren eta Preskripzio Teknikoen pleguak, kontratua araupetuko dutenak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua eta zenbait esleipen-irizpide erabilia.

Laugarrena.- Gonbidapena egitea gutxienez zerbitzu hau emateko hiru enpresari eta/edo profesionali, proiektu teknikoaren kopia batekin batera, ezarritako epean zerbitzu hori emateko proposamen ekonomikoak igor ditzaten.

Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, proposatu da honako puntu hau premiaz sartzea Eguneko Aztergaien Zerrendan:

3.- EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa, Santa María de Garoñako zentral nuklearra behin betiko ixteko eskatzen duena.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du premia justifikatuta dagoela, iritsi diren albisteak direla eta: ematen du Espainiako Gobernuak Garoñaren ustiapena luzatu nahi duela.

Ondoren, premiari buruzko bozketaren egin da, aipatutako puntua sartzeko Eguneko Aztergaien Zerrendan. Bada, hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (4 BILDU + 4 EAJ-PNV + 2 AB)

Abstentzioak: 1 PP

Beraz, premia onetsi da.

Garbiñe andreak honako mozio hau irakurri du: *“SANTA MARÍA DE GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA BEHIN BETIKO IXTEKO ESKATZEKO MOZIOA.*

Santa María de Garoña da estatuan martxan dagoen zentral nuklear zaharrena. 43 urtetik gora igaro ditu martxan.

Denbora-tarte horretan, Garoñak hainbat arazo jasan ditu, eta horiek erakutsi dute segurtasuna falta dela. Kolektibo eta erakundeek egindako itxiera-eskaerak zenbatezinak dira, eta azkenik, Ministroen Batzordeak 2012an erabaki zuen behin betiko 2013ko uztailaren 6an ixtea.

Estatuko gobernu-aldaketarekin, PP buru duen exekutibo berriak hasiera batetik zalantzan jarri du hartutako erabakia, eta itxidura atzeratzeko prest agertu da, zentral nuklearraren funtzionamenduari luzapena emanez.

Hori berretsi egin du maiatzaren 16an NUCLENOREko Administrazio Batzak egindako eskaerak; zehazki, ministerioaren 2012ko ekainaren 29ko agindua bertan behera uzteko eskatu du, horrela Garoña ustiatzen jarraitzeko baimena lortze aldera.

Beraz, gaur egun Garoña ez dago martxan; baina, ematen du gaur egun PPren gobernu, interes ekonomikoak lehenetsiz herritarren segurtasunaren aurrean eta zalantzak eta kezkek eraginez, prest dagoela zentrala berriz irekitzea errazteko.

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNVk mozio hau aurkezten du:

1.- Aiara-Ayalako Udalak berretsi egiten du Santa María de Garoñako zentra nuklearra behin betiko ixtearen aldeko jarrera, eta behin betiko eraisteko eskatzen du.

2.- Aiara-Ayalako Udalak salatu egiten du Arabako diputatu nagusiaren jarrera, ez duelako defendatzen Arabako herritar gehienek iritzia, ixtearen aldekoa, Rajoyren gobernuaren aldebakarreko ebazpenaren alde (zentrala martxan mantentzearen aldekoa da).

3.- Aiara-Ayalako Udalak esku hartzeko eta Espainiako gobernuaren erabakien jarraipena egiteko eskatzen dio Europako Batzordeari, Garoñari dagokionez, Fukishimako hondamendiaren ondoren ezarritako betebeharrak teknikoak betetzen direla bermatzeko.

4.- Aiara-Ayalako Udalak ebazpen hau igortzea Arabako diputatu nagusiari,, Arabako Batzar Nagusietako presidenteari eta taldeei, eta Espainiako Industria eta Energia Ministerioari.”

Josu jaunak (BILDU) esan du eurak mozioaren alde daudela, baina zuzenketa gehigarri bat gehitu nahi dute, 5. puntua gehitu nahi dute.

5.- Aiara-Ayalako Udalak animatu egiten ditu herritar guztiak, Santa María de Garoñako zentral nuklearra behin betiko itxi beharra eskatzen eta adierazten duten ekimen guztietan parte hartzera.

Ondoren, mozioari buruzko bozketa egin da, bosgarren puntua gehituta, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (4 BILDU + 4 EAJ-PNV + 2 AB)

Abstentzioak: 1 PP

Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, proposatu da honako puntu hau premiaz sartzea Eguneko Aztergaien Zerrendan:

4.- Martxoaren 8ko adierazpena (Emakumearen Nazioarteko Eguna)

Josu jaunak (BILDU) esan du premiazkoa dela, martxoko bilkura martxoaren 8aren ondoren egingo delako; beraz, beharrezkoa da adierazpena bilkura honetan onestea.

José Luis jaunak (PP) esan du adierazpen-proposamen ezberdinak alde aurretik eduki behar zirela, aztertzeko, eztabaidatzeko eta adosteko aukera izateko.

Ondoren, aipatutako puntua Eguneko Aztergaien Zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Aitziber andreak (BILDU) honako adierazpen hau irakurri du:

“Martxoaren 8ko adierazpena

EUSKAL HERRI FEMINISTAREN ALDE DUGUN KONPROMISOA

Martxoaren 8a, emakumeen eguna, hurbiltzen ari da. Aukera bat da, hainbeste urtetako borroka gogoratzeko eta ospatzeko; baina, batez ere aukera bat da, emakumeen egungo egoerari buruz hausnartzeko eta balantzea elkarrekin egiteko.

Krisiaren itzalpean, kapitalak eta patriarkatuak maskara kendu dute. Emakumeak galtzen ari gara askatasuna eta orain arte lortutako eskubideak. Atzera egiteko sasoia da. Historia ez da lineala eta beti ez dugu arrera egiten, baina historia ez dago idatzita; beraz, alda daiteke. Atzera bidean egon arren, gure esku dago borroka feminista indartzea eta egoera aldatzea, zailtasunak zailtasun.

Emakumeek gaur egun bizi duten egoera hitz gutxitan labur dezakegu: egunean-egunean biluziago lan-merkatuan, zaintza-lanen motxilan milaka harriren pisuarekin, gure uteroa Estatuaren lurralde bihurtuta eta gure gorputza indarkeria matxistaren ubeldurekin. Hori guztia apailatzeko, eraso ideologikoak emakumearen eta familia heterosexualaren eredu tradizionala betetzen ez dutenen aurka.

Emakumeak gero eta biluziago gaude lan-merkatuan. Lan-merkatua botere ekonomikoen onurarako araupetzen da, babesik gabe utzita lanerako gorputza, burmuina eta eskuak besterik ez dugunak. Legitimatuta egin da haurdun dauden emakumeak kaleratzea, lan-baldintzek okerrera egin dute eta hirugarren sektorean, non emakumeak nagusi baitira (eta beste horrenbeste feminizatutako beste sektore batzuetan), behin-behinekotasuna, segurtasun falta eta prekarietatea. Gainera, lan-merkatutik kanpokotzat jotako lanak, hala nola etxeko lanak eta zaintza-lanak, emakumeen esku daude oraindik ere, eta orain arteko zerbitzuak eta laguntzak murriztu egin dira, pertsonen zaintza luxu bat balitz bezala.

Gure gorputzaren jabetza ukatu nahi digute. Gure uteroa estatuko arazo bihurtu dute, baina arazoa ez al da izango emakumeak garela? Abortatzeko eskubideari uko egiteko kontrarreformarekin, Espainiako estatuak ideologia ultrenari erantzuten dio, emakumeak ama eta

emazte besterik ez izatera bultzatzen ditu, eta orain dela 40 urte legetxe, gure barnetiko oihu urratzaileak gure eztarrietatik kanpora irteten dira.

Kontrarreformarekin batera erasoak datoz emakumeen askatasunaren eta aniztasunaren aurka, mantsoagoak eta otzanagoak izan gaitzen. Patriarkatua bizkarrezur izanik, familia tradizionalaren eta heteropatriarkalaren ereduak indartzen dira, hala nola, honako hauek: ugaltzeko laguntza bikote heterosexualei bakarrik ematea, emakume haurdun guztiak behartzea ama izatera, gure gorputza eta gure desioak ezagutzeko eta garatzeko lagungarri den sexu-hezkuntza muturreraino murriztea (erabat desagerrarazteraino, LOMCEren bidez), Elizako agintari nabarmenek gaixotasun legez aurkezten dituzte sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak, eta horiekin garrantzia kentzen zaio indarkeria sexistari, makilatuz eta, kasu batzuetan, baita justifikatuz ere. Erakunde Publikoek eta komunikabideek duten erantzukizuna handia da.

Badakite zer garrantzitsua den hezkuntza, emakume eta gizon askeak izateko, geure gogoaren eta gorputzaren jabe izateko, eta espainiar estatua erlijio katoliko muturrenekoaren eskutik sartu nahi da eskoletan, neskato-mutikoen desioak kolonizatzeke, kolpe batez desagerrarazteke, LOMCEren bidez, berdintasunaren eta hezikidetzaren alde egindako lana eta ibilitako bidea.

Bestalde, atzemateko modukoa da komunikabideetan gertatu den atzerakada: egunerokotasunari buruzko eztabaidetan, emakumeen presentzia anekdotikoa da. Inork ez gaitu ikusten, inork ez du dioguna entzuten. Gainera, komunikabide horien edukiek eta publizitateak elikatu egiten dituzte estereotipo, rol eta balio sexistak, estereotipoz beteriko habia bihurtuz.

Atzerakada larria bizi dugu. Gero eta gehiago urruntzen ari gara emakumeak subjektu politiko eskubidedun legez onartzetik. Egungo krisia emakumeen askatasunaren krisia ere bada, sexuen arteko eskubide-berdintasunaren krisia ere bada; izan ere, oraindik ere lortzeko hainbat helburu bagenituen arren, bizi dugun atzerakada ikaragarria izaten ari da. Botere politikoak eta ekonomikoak sistema heteropatriarkalean kaiolatu nahi gaituzte emakumeok, berriz ere.

Egoeraren irakurketa gogor honek, uzkurdurara eraman baino, lagundu egin behar gaitu kontziente izatera eta gure erantzuna iratzartzera. Sare indartsuak sortu behar ditugu emakumeen artean, eta elkarrekin galdutakoa identifikatu behar dugu eta aurre egin behar diogu. Gure bidea egin behar dugu, izan nahi duguna izateko: emakumeak, euskaldunak, askeak, norberak nahi duena. Eta zabal dezagun gure sarea beste esparru guztietara, esparru sozio-ekonomikora, kulturalera, politikora eta instituzionalera. Eta elika ditagun gure aliantzak gizarte-, politika- eta sindikatu-eragileekin, gure inguruko emakume eta gizonekin, Euskal Herri euskaldun eta feminista eraikitzeke.

AIARako Udaleko zinegotziek hitzematzen dugu emakume eta gizon libreen Euskal Herriaren alde lan egingo dugula:

- *Berdintasun-politikak bultzatuta, aurrekontuetan partidak jasoz.*
- *Genero-ikuspegia udal-kudeaketaren bizkarrezur bihurtuz.*
- *Emakumeen elkarteekin eta mugimendu feministarekin harremanak indartuz.*

Azkenik, sexuen arteko berdintasuna bilatzen duzuen emakume eta gizon guztiak animatu nahi zaituztegu, martxoaren 8aren kariatara Aiaran egingo den elkarretaratzera.”

Iratxe andreak (AB) esan du adierazpena beste Udal batean onetsitakoaren kopia bat dela; beraz, esan du zuzenagoa izango litzatekeela guztien artean erabakitzea Aiarako Udalak esparru honetan hartuko dituen konpromisoak.

Ez da beste ezer esan, adierazpenari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (4 BILDU + 4 EAJ-PNV + 2 AB)

Abstentzioak: 1 (PP)

5.- Alkatetza Dekretuak:

- **Erref.- 25/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2013ko laugarren hiruhilekoa (kontzeptua: gasa).
- **Erref.- 26/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2013ko laugarren hiruhilekoa (kontzeptua: elektrizitatea).
- **Erref.- 27/14.- Naturgas Energía Distribución, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2013ko laugarren hiruhilekoa.
- **Erref.- 28/14.- AXPO IBERIA, SL.-** Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa, 2013ko laugarren hiruhilekoa.
- **Erref.- 29/14.- HC-Naturgas Comercializadora Último Recurso, SA.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2013. urtea.
- **Erref.- 30/14.- JBF.-** Txakur bat inskribatzea Aiarako Udalaren arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan.
- **Erref.- 31/14.- Onestea F/2013/15 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 32/14.- TEO.-** Gaitzestea 463/13 Alkatetza Dekretuaren aurkako berrezartze-helegitea.
- **Erref.- 33/14.- AFARi diru-laguntza eskatzea, 2014an kultur jarduerak egiteko.**
- **Erref.- 34/14.- FCB.-** Ozekan obrak legeztatze lizentzia ematea.
- **Erref.- 35/14.- MD ML.** Salbuestea Ibilgailuen gaineko udal-zergatik, minusbaliotasunagatik.
- **Erref.- 36/14.- MPF.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, horma batean zuloa egiteko eta ate metaliko bat jartzeko.
- **Erref.- 37/14.- AEE.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno udalerriko Mota auzoko etxola baten estalkian erreteila egiteko.
- **Erref.- 38/14.- Jardueren esparruan laguntza teknikoko zerbitzua esleitzea.**
- **Erref.- 39/13.- MCAV.-** Dokumentazio gehiago aurkezteko eskatzea, obrarako lizentzia-eskaeraren inguruan.
- **Erref.- 40/13.- JJJB.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, lorategian atea ireki ahal izateko, Luiaondoko Tartako kalerako sarbidearekin.
- **Erref.- 41/14.- LMG.-** Lizentzia-eskaerari buruzko dokumentazio gehiago aurkez dezala eskatzea.
- **Erref.- 42/14.- KPM.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako 3. poligonoko 903 zenbakiko lursailean zenbait jarduera egiteko.

Udalbatzako kideak alkatetza-dekretu horien jakitun dira.

6.- Norberak lekarkeena.

- José Antonio jaunak (EAJ) esan du kirol anitzeko pistan argiaren koadroa zigilatuta dagoela eta ezin dela argia piztu. Arazorik ote dagoen galdetu du.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du berak ez dakiela ezer, ez dela inolako agindurik eman zigilatzeke. Juan Carlosi esango zaio hori begiratzeko.

- Iratxe andreak (AB) esan du argiteria publikoari dagozkion fakturak gehiegizkoak iruditzen zaizkiola. Uste dute ez direla kobratzen ari jardueragatik esleitu zitzaiena.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du hori berrikusi egingo dela.

Esteban jaunak (BILDU) adierazi du batzordearen azken bilkurara zenbakiak eramane zirela eta ikusi zela enpresa hau aurrekoak baino merkeagoa dela. Faktura horiek berrikusiko dira, eta plegu batzuk egin beharko dira, kontratu hori esleitzeko.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeian.

OE

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.